



**2020/2021 IKASTURTERAKO ARGIBIDEAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IKASTETXEETATIK ATZERRIKO HEZKUNTZA-SISTEMAREN BATEKO IKASKETAK, GAZTELANIA ETA ESPAINIAKO KULTURA IKASKETAK ETA, HALA BADAGOKIO, EUSKARA ETA EUSKAL LITERATURA IKASKETAK EMATEN DITUZTEN IKASTETXEETAKO IKASKETAK BALIOZKOTZEKO ETA HOMOLOGATZEKO PROZEDURARI BURUZKOAK (Espainiako ikastetxe atzerritarren araubideari buruzko maiatzaren 28ko 806/1993 Errege Dekretuko II. kapituluko 1. atala)**

Ikastetxe atzerritarretan egindako ikasketak aintzatesteko orduan, unibertsitateaz kanpoko hezkuntzako atzerriko titulu nahiz ikasketak homologatzeari nahiz baliozkotzeari buruzko arautegian zehaztutakoa bete beharko da, halaxe xedatu baita Espainiako ikastetxe atzerritarren araubideari buruzko maiatzaren 28ko 806/1993 Errege Dekretuko 8. artikuluan (ekainaren 23ko BOE). Arautegi hori osatzen dute, hain zuzen ere, urtarrilaren 29ko 104/1988 Errege Dekretuak (otsailaren 17ko BOE), eta 1988ko martxoaren 14ko nahiz 1996ko apirilaren 30eko Ministerio Aginduek (hurrenez hurren, martxoaren 17ko eta maiatzaren 8ko BOEtan argitaratuak). Aginduok, bidenabar, abenduaren 16ko ECD/3305/2002 Aginduak aldatu ditu (abenduaren 28ko BOEan argitaratutakoak).

Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Estatuko Idazkaritzaren 2018ko martxoaren 23ko Ebazpenean xedatutakoa betez (apirilaren 2ko BOE), hura indarrean sartu denetik espedientearen batez besteko nota jaso behar da atzerriko ikasketak nahiz tituluak Espainiako batxilergoko ikasketa nahiz tituluekin baliozkotzeko eta homologatzeko egiaztagirietan, zein Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako tituluekin homologatzeko egiaztagirietan.

Unibertsitatez kanpoko hezkuntzako atzerriko tituluak nahiz ikasketak homologatzeko eta baliozkotzeko ogasun autonomikoaren tasak finkatu dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legean. Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrak onartzen dituen aginduak urtero aldatzen ditu. Hori horrela izanik, eskaera aurkezteko unean indarrean dauden tasak ordaindu beharko dira.

Aurreko urteetan bezalaxe, homologatzeko eskaerak aurkez ditzakete aurten ere ikastetxeek. Eskaera hoiak aurten Hezkuntza administrazioak 21/2012 DEKRETUA otsailaren 21ekoa jarraituz, egindako informatika herramintaren bitartez aurkeztu beharko dute.

Ekainaren 28ko 135/2011 Dekretuaren bidez onartu da Transferentzien Bitariko Batzordeak 2011ko ekainaren 22an hartutako erabakia, alegia, irailaren 26ko 2808/1980 Errege Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoaren esku utzitako hezkuntzako eginkizun eta zerbitzuak handitzeari buruzkoa (unibertsitateaz kanpoko



atzerriko tituluak eta ikasketak homologatzea eta baliozkotzea). Hizpide dugun Dekretuan, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan aurkitzen diren unibertsitateaz kanpoko atzerriko ikastetxeen ikasketak aitortzearekin lotutako funtzioen transmisioa jaso da.

Horregatik guztiagatik, honako Argibide hauek ematea erabaki du Zuzendaritza honek:

## **ARGIBIDEAK**

### **LEHENENGOA**

1.- Hezkuntza Sailak atzerriko ikasketen homologazio eskaerentarako tramitazio telematikoa dauka. Ondorioz, Ikastetxe bakoitzak finkatzen duen prozeduraren arabera, ikasle bakoitzeko eskaera bat egin beharko da. Horretarako prozedura hurrengoa izango da:

- a. Aipaturiko herramintan eskaera bete, inprimatu eta izenpetu.
- b. Ordain agiria atera eta online ordaindu (frogagiria inprimatu) edo bankuan ordaindu aldeztu aurretik inprimatuz.

2.- Azkenik, Zentruak Eusko Jaurlaritzako Ikastetxe eta Plangintzaren Zuzendaritzara bidaliko ditu a eta b inprimakiak ikaslearen Eskola agiri guztiekin

### **BIGARRENA. Aurkeztu beharreko agiriak.**

#### **1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan Graduatua titulua homologatzea eskatzeko**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan Graduatua titulua homologatzea eskatzen duten ikasleen zerrenda egiaztatua aurkeztuko dute ikastetxeek, Argibide hauen I. eranskinean jasotako ereduari jarraituz. Harekin batera, honako agiri hauek aurkeztuko dira ikasle bakoitzeko:

a.- Aplikazio informatikoan ikaslearen izenean betetako eskabidearen inprimakia, beren tutoreak edo haren ordezkariak sinatua. Azken honek sinatua bada, baimen idazkia ere aurkeztu beharko da.

b.- Ikaslearen NANaren, pasaportearen edota zuzenbidean onartutakoetatik haren nortasuna egiaztatzen duen beste edozer agiriren fotokopia konpultsatua edo ikastetxeak zigoilatutakoa. Ordezkaria egongo balitz, azken honen nortasun agiriaren fotokopia konpultsatua ere gehitu beharko da.

c.- Ikastetxearen banakako egiaztagiria edo haren fotokopia konpultsatua. Egiaztagiri horretan zehaztu beharko da ikasleak egin eta gainditu dituela atzerriko hezkuntza-sistemaren dagokion maila eta gradu guztiak, Gaztelania nahiz Espainiako Kultura ikasgaiak eta Euskara eta Euskal Literatura ikasgaiak, 2021eko martxoaren 24aren arabera, EHAA 2021eko martxoaren 31a.



Egiaztagiri bakoitzean zehaztu beharko da ikasleak zer maila edo gradu gainditu dituen ikastetxean –kasuan kasuko hezkuntza-sistemaren arabera–; maila horietako bakoitza zer ikasturtetan egin duen; zer ikasgai egin dituen eta ikasgai horietan zer nota izan duen. Notak jartzeko orduan, bidenabar, atzerriko hezkuntza-sistemaren kalifikazio-eskala erabiliko da eta bere parekoa euskal erkidegoko hezkuntza sisteman.

Gaztelania eta Espainiako Kultura eta Euskara eta Euskal Literatura ikasgaiak derrigorrezkoak direla adieraziko da eskola-egiaztagirian. Zehaztuko da, baita ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1., 2., 3. eta 4. mailen baliokide diren gradu edo mailetatik zeinetan egin diren aipatu ikasgai horiek.

Aipatutakoez gain, honako hauek guztiek agertu beharko dute banakako egiaztagirietan: ikastetxearen idazpurua eta zigilua; egiaztagiria egiteko eskumena duen arduradunaren sinadura; eta zuzendari teknikoaren sinadura.

## **2. Batxilergoko titulua homologatzea eskatzeko**

Batxilergoko titulua homologatzea eskatzen duten ikasleen zerrenda egiaztatua aurkeztuko dute ikastetxeek, Argibide hauen III. eranskinean jasotako ereduari jarraituz. Harekin batera, honako agiri hauek aurkeztuko dira ikasle bakoitzeko:

a.- Aplikazio informatikoan ikaslearen izenean betetako eskabidearen inprimakia, beren tutoreak edo haren ordezkariak sinatua. Azken honek sinatua bada, baimen idazkia ere aurkeztu beharko da.

b.- Ikaslearen NANaren, pasaportearen edota zuzenbidean onartutakoetatik haren nortasuna egiaztatzen duen beste edozer agiriren fotokopia konpultsatua edo ikastetxeak zigilatutakoa. Ordezkaria egongo balitz, azken honen nortasun agiriaren fotokopia konpultsatua ere gehitu beharko da.

c) Dagokion tasa ordaindu izanaren egiaztagiria.

d) Ikastetxearen banakako egiaztagiria edo haren fotokopia konpultsatua. Egiaztagiri horretan zehaztu beharko da ikasleak egin eta gainditu dituela atzerriko hezkuntza-sistemaren dagokion maila eta gradu guztiak.

Egiaztagiri bakoitzean zehaztu beharko da ikasleak zer maila edo gradu gainditu dituen ikastetxean –kasuan kasuko hezkuntza-sistemaren arabera–; maila horietako bakoitza zer ikasturtetan egin duen; zer ikasgai egin dituen eta ikasgai horietan zer nota izan duen. Notak jartzeko orduan, bidenabar, atzerriko hezkuntza-sistemaren kalifikazio-eskala erabiliko da eta bere parekoa euskal erkidegoko hezkuntza sisteman.

Espainiko Hizkuntza eta kultura eta euskal hizkuntza eta literatura ikasgaiak horrela agertuko dira hezkuntza ziurtagirietan.



Aipatutakoez gain, aurkeztu beharko dituzte, baita ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1., 2., 3. eta 4. mailen baliokideak diren atzerriko gradu edota mailak egin eta gainditu izanaren egiaztagiriak. Atzerriko hezkuntza-sistemaren berezko ikasgaiak ageri diren egiaztagiri horietan, baina ondo bereizitako aparteko beste atal batean, ikasleak Gaztelania eta Espainiako Kultura eta, hala badagokio, Euskara eta Euskal Literatura derrigorrezko ikasgaiak gainditu dituela adierazi beharra dago.

Ikasleak aldeaz aurretik lortu edo baliokidetu baldin badu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan Graduatuaren Espainiako titulua, aurreko paragrafoan adierazitako egiaztagiriak ez dira beharrezkoak izango, nahikoa izango baita Espainiako titulua edota baliokidetze-egiaztagiriaren kopia aurkeztearekin.

e) Azken diplomaren edo egiaztagiriaren fotokopia konpultsatua, baldin eta agiri hori beharrezkoa baldin bada baliozkotzea lortzeko (Frantziako Bac, Alemaniako Abitur, High School, Nazioarteko Batxilergoa).

### **3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan Graduatu titulua eta Batxilergoko titulua homologatzea eskatzeko**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan Graduatu titulua eta Batxilergoko titulua homologatzea eskatzen duten ikasleen zerrenda egiaztatua aurkeztuko dute ikastetxeek, Argibide hauen V. eranskinean jasotako eredia betez. Harekin batera, honako agiri hauek aurkeztuko dira ikasle bakoitzeko:

a.- Aplikazio informatikoan ikaslearen izenean betetako eskabidearen inprimakia, beren tutoreak edo haren ordezkariak sinatua. Azken honek sinatua bada, baimen idazkia ere aurkeztu beharko da.

b.- Ikaslearen NANaren, pasaportearen edota zuzenbidean onartutakoetatik haren nortasuna egiaztatzen duen beste edozer agiriren fotokopia konpultsatua edo ikastetxeak zigilatutakoa. Ordezkaria egongo balitz, azken honen nortasun agiriaren fotokopia konpultsatua ere gehitu beharko da.

c) Dagokion tasa ordaindu izanaren egiaztageria.

d) Ikastetxearen banakako egiaztageria edo haren fotokopia konpultsatua. Ikasleak atzerriko hezkuntza-sistemaren dagokion maila eta gradu guztiak egin eta gainditu dituela zehaztuko da egiaztageri horretan.

Era berean, egiaztageri bakoitzean zehaztuko da ikasleak zer maila edo gradu gainditu dituen ikastetxean –kasuan kasuko hezkuntza-sistemaren arabera–; maila horietako bakoitza zer ikasturtetan egin duen; zer ikasgai egin dituen eta ikasgai horietan zer nota izan duen. Notak jartzeko orduan, bidenabar, atzerriko hezkuntza-sistemaren kalifikazio-eskala erabiliko da eta bere parekoa euskal erkidegoko hezkuntza sisteman.



Espainiera eta Espainiako Kultura eta, hala badagokio, Euskara eta Euskal Literatura ikasgaiak derrigorrezkoak direla adieraziko da eskola-egiaztagirian. Horrez gain, aipatu ikasgai horiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1., 2., 3. eta 4. mailen baliokide diren gradu edo mailetatik zeinetan egin diren zehaztuko da.

e) Azken diplomaren edo egiaztagiriaren fotokopia konpultsatua; baldin eta agiri hori beharrezkoa bada baliozkotzea lortzeko (Frantziako Bac, Alemaniako Abitur, High School Batxilergoaren kasuan, Nazioarteko Batxilergoa).

#### **4. Baldintza komunak:**

##### **4.1. Sinadurak:**

Zerrenda egiaztatu guztietan agertu beharko dira ikastetxearen idazpurua, zigilua, eta zerrenda egiteko gaitasuna duen arduradunaren sinadura.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan Graduatua titulua homologatzea eskatu duten ikasleen zerrenda egiaztatuak ekarri behar ditu ikastetxeko erreferentziazko ikuskatzailearen oniritzia eta 806/1993 Errege Dekretuko 12.2. artikuluan aurreikusitako zuzendari teknikoaren sinadura.

Aipatu berri ditugun zuzendari teknikoaren sinadurak eta ikastetxeko erreferentziazko ikuskatzailearen oniritzia beharrezkoak izango dira soil-soilik Gaztelania eta Espainiako Kultura nahiz, hala badagokio, Euskara eta Euskal Literatura ikasgaietan.

##### **4.2. Aurretiazko azterlanak:**

Ikasleak ikastetxe berean ez baditu egin homologatzea edo baliozkotzea eskatu duen ikasketa guztiak, kasuan kasuko ikastetxean sartu aurretik ikasleak egindako ikasketen eskola-egiaztagiria ere aurkeztu beharko da. Gerta daiteke, baita ere, ikasleek aldeztu aurretik homologatu edo baliozkotutako ikasketa atzerritarrek egin izana, edo Espainiako titulua lortu izana. Horrelakoetan, nahikoa izango da tituluaren edo egiaztagiriaren fotokopia konpultsatua aurkeztearekin.

##### **4.3. Notak:**

Ikasturte guzti-guztietan egindako irakasgai guztien notak jaso beharko dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua zein Batxilergoko titulua homologatzeko eskaerekin batera aurkeztutako ikasketa-egiaztagirietan eta, Argibide hauetan xedatutakoa betetzeari dagokionez, ez da nahikoa izango mailaren nota orokorra zehaztearekin.

Kasuan kasuko hezkuntza-sistemaren berezko noten eskalaren arabera adieraziko dira ikasgai guztien notak eta beraien baliokidea euskal erkidegoko autonomian indarrean den hezkuntza sisteman, salbu eta Gaztelania eta Espainiako Kultura eta Euskara eta Euskal Literatura irakasgaiak, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean den hezkuntza-sistemaren eskalaren arabera jarriko baitira azken bi irakasgai horien notak.



#### 4.4. Eskerak aurkeztea

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Saileko Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzaren Ikasketen Antolamenduko Zerbitzuan aurkeztuko dira eskaerak.

Eskerak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean zehaztutako lekuetan.

#### 4.5. Baldintzapeko izen-emateen agiriak.

Ikasleek izena eman nahi baldin badute unibertsitatean edo beste ikastetxe batzuetan sartzeko azterketetan, "Ikastetxeetan edo azterketa ofizialetan baldintzapean izena emateko agiria" aurkeztu beharko d eskaerarekin batera, aldez aurretik ezarritako epeen barruan eman dezaten izena ikasleek. Abenduaren 16ko ECD/3305/2002 Aginduko II. eranskineko (abenduaren 28ko BOE) ereduari jarraituz egingo da agiri hori, eta ikasleak edo legezko haren ordezkariak bete eta sinatu beharko dute. Hizpide ditugun agiri horiek zigilatu eta dagokion ikastetxeari bueltan bidaliko dizkio eskabideak aurkeztutako Erregistro Unitateak.

#### 4.6. Izapidetzea

Atzerrian lortutako unibertsitateaz kanpoko hezkuntzako titulu edo ikasketak homologatzeari eta baliozkotzeari buruzko arauetan xedatutakoa betez izapidetuko dira espedienteak.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko martxoaren 31an.

IKASTETXE ETA PLANGINTZAKO ZUZENDARIA  
Eugenio Jimenez Ibañez

**I. ERANSKINA**

**DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN GRADUATUA TITULUA  
HOMOLOGATZEA ESKATZEN DUTEN IKASLEEN ZERRENDA EGIAZTATUA  
(2/2006 Lege Organikoa 3/2020 Lege Organikoak aldatua)**

**IKASTETXEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK:**

**Hezkuntza-sistema:**

**Ikastetxearen izena:**

**Helbidea:**

**HONAKO IKASLE HAUEN IKASKETAK HOMOLOGATZEA PROPOSATZEN DA:**

<u>ABIZENAK</u>	<u>IZENA</u>	<u>NAZIONALITATEA</u>	<u>JAIOTEGUNA</u>
-----------------	--------------	-----------------------	-------------------

1.-

2.-

3.-

...

(hurrengoa)

Nik .....



..... jaunak/andreak,

..... ikastetxeko zuzendari  
naizen honek,

EGIAZTATZEN DUT DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN GRADUATUA  
TITULUA homologatzeko baldintzak betetzen dituztela zerrenda honetako 1.  
zenbakitik ..... era aipatutako ikasle guztiek (2/2006 Lege Organikoa 3/2020  
Lege Organikoak aldatua).

Data:

(Ikastetxeko zuzendariaren sinadura)

Gaztelania eta Espainiako Kultura eta Euskara nahiz Euskal Literatura irakasgaiak  
koordinatzeaz arduratzen den zuzendari teknikoak EGIAZTATZEN DU zerrenda  
honetan aipatutako ikasle guztiek aipatu ikasketak egin eta gainditu dituztela Euskal  
Autonomia Erkidegoko indarreko hezkuntza-sistemaren derrigorrezko mailen  
baliokideetan.

(zuzendari teknikoaren sinadura)

Hezkuntza Ikusatzaitzaren oniritzia





## II. ERANSKINA

**BATXILERGOKO TITULUA HOMOLOGATZEA ESKATZEN DUTEN IKASLEEN ZERRENDA EGIAZTATUA (2/2006 Lege Organikoa 3/2020 Lege Organikoak aldatua)**

### **IKASTETXEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK:**

**Hezkuntza-sistema:**

**Ikastetxearen izena:**

**Helbidea:**

### **HONAKO IKASLE HAUEN IKASKETAK HOMOLOGATZEA PROPOSITZEN DA:**

<u>ABIZENAK</u>	<u>IZENA</u>	<u>NAZIONALITATEA</u>	<u>JAIOTEGUNA</u>
-----------------	--------------	-----------------------	-------------------

1.-

2.-

3.-

...

(hurrengoa)

Nik .....



..... jaunak/andreak,

..... ikastetxeko zuzendari  
naizen honek,

EGIAZTATZEN DUT BATXILERGOKO TITULUA homologatzeko baldintzak betetzen dituztela zerrenda honetako 1. zenbakitik ..... era aipatutako ikasle guztiek (2/2006 Lege Organikoa 3/2020 Lege Organikoak aldatua).

Data:

(Ikastetxeko zuzendariaren sinadura)

### III. ERANSKINA

**DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN GRADUATUA TITULUA ETA  
BATXILERGOKO TITULUA HOMOLOGATZEA ESKATZEN DUTEN IKASLEEN  
ZERRENDA EGIAZTATUA (2/2006 Lege Organikoa 3/2020 Lege  
Organikoak aldatua)**

#### **IKASTETXEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK:**

Hezkuntza-sistema:

Ikastetxearen izena:

Helbidea:

#### **HONAKO IKASLE HAUEN IKASKETAK HOMOLOGATZEA PROPOSATZEN DA:**

<u>ABIZENAK</u>	<u>IZENA</u>	<u>NAZIONALITATEA</u>	<u>JAIOTEGUNA</u>
-----------------	--------------	-----------------------	-------------------

1.-

2.-

3.-

...

(hurrengoa)

Nik .....



..... jaunak/andreak,

..... ikastetxeko zuzendari  
naizen honek,

EGIAZTATZEN DUT DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN GRADUATUA  
TITULUA ETA BATXILERGOKO TITULUA homologatzeko baldintzak betetzen  
dituztela zerrenda honetako 1. zenbakitik ..... era aipatutako ikasle guztiek  
(2/2006 Lege Organikoa 3/2020 Lege Organikoak aldatua).

Data:

(Ikastetxeko zuzendariaren sinadura)

Gaztelania eta Espainiako Kultura eta Euskara nahiz Euskal Literatura irakasgaiak  
koordinatzeaz arduratzen den zuzendari teknikoak EGIATZATZEN DU zerrenda  
honetan aipatutako ikasle guztiek aipatu ikasketak egin eta gainditu dituztela Euskal  
Autonomia Erkidegoko indarreko hezkuntza-sistemaren derrigorrezko mailen  
baliokideetan.

(zuzendari teknikoaren sinadura)

Hezkuntza Ikusatzaitzaren oniritzia